

2008ko otsailaren 13an UDALBATZAK EGINDAKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA.

2. Zk.

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 18,30tan, Udalbatzarra bildu da.

Alkate Lehendakari jaunak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: IGOR ITURAIN IBARGUREN

ZINEGOTZIAK : 1.- MARIA JESUS ARRUABARRENA ESNAOLA

2.- ANDER ARRILLAGA ALBENIZ

3.- MARI KARMEN EGURZA AGIRRE

4.- BITTOR SANCHEZ MENDIZABAL

5.- NAIARA ESNAL HUEGUN

6.- ANTXON GOMEZ LORENTE

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA: ITZIAR AZURTZA-SORRONDEGI

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.- Aurreko Aktak onartu .

Idazkariak idatzitako 2007ko abenduaren 12 Akta eta 2008ko urtarrilaren 30koa onartu dira.

2.- Gozategi 11 atzekaldeko espaloi lagapena onartu.

Gozategi 11 eraikin parean dagoen espaloi zatia, 73,96 metrotakoa, bertako etxejabeek udalari lagatzeko asmoa azaldu diote. Gero udala bere mantenuaz arduratuko litzatekela gaineratu du Alkateak.

AKORDIOA: Udalbatzak, aho batez, onartu du batetik, Gozategi 11 parean dagoen espaloi zatiaren lagapena eta bestetik, espaloi zati honen mantenuaren ondoriozko gastuak bere gain hartzea.

3.- Aisialdiko txabolen ordenantzaren 9 artikulua aldatzea. Hasierako onarpena.

Antxon Gomez zinegotziak adierazi du komenigarri derizkiola aisialdiko txabolen ordenantza aldatzeari, abalak direla eta, behinik-behin. Aiako Udalbatzak 2003ko uztailaren 23an onartu zuen aisialdiko nekazal txabola ordenantza (GAO 2004ko otsailak 19). Gaur egun araututakoaren arabera, txabolak eraikitzeke lizentziak prekarioan ematen direnez gero, bota beharra egongo balitz, ez litzateke indemnizazio eskubiderik egongo. Eraikina botatzeko obligazio hau betearazteko abal edo berme bat eskatzen da 600.-eurotakoa, edozein izanik ere txabolaren ezaugarriak. Hain zuzen ere, honela dio 9. artikulua:

“Ordenantza honen babesean emandako lizentziak beti behin-behinekoak izango dira, indemnizazio eskubiderik gabe botatzea suertatuko balitz, 1976ko 1346/76 Errege Dekretuak xedatutako luzoruairen legeak bere 58.2 artikuluan dionaren arabera.

Obra baimena eman ahal izateko, eskatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu:

–Lurraren jabetzaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko du.

–Eskaerarekin batera, batetik, planotxo batean eraikuntzaren kokapena azalduko du; bestetik, eraikuntza beraren azalera eta altuera azalduko dituen marrazkia.

–600 Eurotako abala aurkeztea lizentzia eman eta obrak hasi bitarteko epean, eraikuntza ordenantza honen baldintzak beteko dituenaren berme bezala.”

Gomez zinegotziaren proposamena abal hau txabolaren tamainaren arabera egokitzea da. Idazkariak gehitu du zuzenena, txabolaren azalera erreferentzia gisa hartzea litzatekela, hiru tramo ezberdinduz:

- a) lehen tramo: 6 metro eta 15 metro bitarteko txabolek, 100.-euroko abala
- b) bigarren tramo: 15 metrotik gora eta 30 metro bitarteko txabolek 300.-euroko abala.
- c) hirugarren tramo: 30 metrotik gora eta 45 metro bitarteko txabolek 600.-euroko abala.

Gaineratu du Idazkariak, izapidetzari dagokionez, hasierako onarpen akordioa, GAO n iragarri beharko dela eta jendaurrean jarriko dela espedientea 30 egun naturalez.

AKORDIOA: Udaltzak aho batez onartu du aisialdiko txabola ordenantzaren 9 artikulua, abalari buruzkoa, aldatzea, bermea txabolaren azaleraren proportzioan ezarriz, jarraian jaso bezala:

- d) lehen tramo: 6 metro eta 15 metro bitarteko txabolek, 100.-euroko abala
- e) bigarren tramo: 15 metrotik gora eta 30 metro bitarteko txabolek 300.-euroko abala.
- f) hirugarren tramo: 30 metrotik gora eta 45 metro bitarteko txabolek 600.-euroko abala.

4.- “ ECHEVESTE DIVISION ARQUITECTURA” enpresarekin Udalak zuen obra kontratua bukatutzat jo eta esleipen berria erabaki.

Idazkariak adierazi du Udaltzak “ECHEVESTE DIVISION ARQUITECTURA “ enpresari obra kontratua esleitu ziola 2006ko abenduaren 19an frontoiaren beirazko itxitura egin zezan. Obra bukatzeko epea, 24 astetako, 2007ko uztailaren 17an agortu zen. Eta ez zen luzapen eskaririk zuzendu udaletxera. Gerora, enpresa honek “ hartzekodun lehiaketa” eskaera aurkeztu zuen 2007ko udazkenean. Pleguetan seigarren baldintzan aipatu da obra atzeratzeagatik penalizazioak ezarriko direla. 25 egun natural baino gehiago atzeratuz %8-koa izango da isuna, lizitazio prezioaren gain. Hau, 238.501,32.-eurokoa denez, isuna 19.080,10.-eurokoa da. Obra hau 2007ko uztailaz geroztik epe kanpo dagoenez eta horregatik, kontratua eteteko aukera badagoela kontuan hartuz, kontratua bukatutzat ematea derrigorrezkoa da Udalak lanekin aurrera jarraitu nahi badu. 2007ko azaroaren 12an, egindako obren neurketa eta balorazioa egin du udal aparejadoreak, 170.770,26.-eurotan.

Enpresarekin zuzenean ez dago inolako zorrik. Aitzitik, udala hartzekodun gerta liteke, abala (9.580.-euro) jarri ez zelako bere garaian.

Baina, Arizeta Talleres SL enpresarekin uztailaren 16an izenpetu zen kreditu lagapen kontratu bat eta honen arira ordaindu ziren hiru faktura herreritza lanengatik. Dena den, gogorarazi behar da kontratu honen lehen estipulazioan espreski jaso dela kreditu lagapena frontoiaren obra atzeratzeagatik ezar litezkeen penalizazioetara egongo dela baldintzatua. Hori dela eta, laugarren “6306” faktura (24.872,60.-eurokoa eta 2007ko abuztuko), pleguetako seigarren baldintzan jasotako penalizazioen menpe dago. Eta ondorioz, gehienez ere, 24.872,60.-euro horiei 19.080,10.-euro kenduz gero, 5.792,5.-euro ordain liteke. Hala ere, kontuan izanik, abala 9.580.-eurotako ez zela jarri, bi kopuru hauek konpentsatuz gero, udalaren aldeko saldo bat dago 3.787.-eurokoa, kalte galera gisa.

Kontratua eteteko espedienteari 2007ko abenduaren 17an ekin zitzaion Alkate Probidentziaz eta abenduaren 27an obren neurketa frogatzeko ekitaldira dei egin zitzaion enpresari, baina ez zen etorri.

Dena den, bukatu gabe utzitako lanekin aurrera jarraitu beharra dagoenez, 2006an kontratazio espedientean parte hartu zuen beste eskaintzaileak (ALBISU kristaldegia SL enpresak) egiteke dauden obrak jarrai ditzan esleipen berria egin behar da. Honek, gelditzen diren lanak bi fasetan ezberdindu ditu.

Lehen faseak, ezaugarri hauek ditu:

- a) Exekuzio epea: 2-3 aste
- b) Hasiera eguna: 2008ko otsailak 18, astelehena
- c) Egin beharreko lanak: neurketak, perfila taladratu eta garabi alokairua.
- d) Aurrekontua: 14.412.-euro (BEZ kanpo)

Bigarren fasearen ezaugarriak honexek dira:

- a) Exekuzio epea: 5 aste
- b) Hasiera eguna (zehaztu gabea) : 2008ko martxo bukaeran
- c) Egin beharreko lanak: Beiraren instalazioa
- d) Aurrekontu gutxigorabeherakoa (aldagarria): 121.500.-euro (BEZ kanpo)

AKORDIOA: Batzarkideek ahobatez onartu dute :

Lehenik.- “ECHEVESTE DIVISION ARQUITECTURA” enpresarekin zegoen obra kontratua, herriguneko frontoiaren beirazko itxitura dela eta, etetea– zorrik gabe- eta jarri ez zen abalaren inguruan, hartzekodun izendatuz udala.

Bigarrenik.- Bukatu gabe utzitako lanekin aurrera jarraitu ahal izateko, “ALBISU kristaldegia” enpresari esleitu ondoren aipatutako lana jarraian izendatutako prezioan:

- a) Exekuzio epea: 2-3 aste
- b) Hasiera eguna: 2008ko otsailak 18, astelehena
- c) Egin beharreko lanak: neurketak, perfila taladratu eta garabi alokairua.
- d) Aurrekontua: 14.412.-euro (BEZ kanpo)

5.- Galderak eta eskaerak: Udalaren adierazpena Antxon Gomez zinegotziaren auziperatzea dela eta.

AKORDIOA: Udalbatzak aho batez onartu du gaitzespen adierazpen publiko bat egitea eta argitara ematea komunikabideetan Antxon Gomez zinegotziaren auziperatzea dela eta.

Bilera 19:30tan bukatu da eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezen, idazkariak idatzi eta bertaratutakoek onartu eta izenpetu dute, Aian 2008ko otsailaren 13an.

IGOR ITURAIN IBARGURENek

MARIA JESUS ARRUABARRENA ESNAOLAK

MAITANE ARRILLAGA ALDALUREk

ANDER ARRILLAGA ALBENIZEk

ANTXON GOMEZ LORENTEK

MARI KARMEN EGURZA AGIRREK

NAIARA ESNAL HUEGUNek

BITTOR SANCHEZ MENDIZABALEk

Itziar Azurtza-Sorrondegik,
Idazkari-kontuhartzaileak.